

Haurren eta nerabeen hizkuntza-erabilera eskolaz kanpoko ekintzetan hizkuntza-ereduaren arabera. Nafarroa

Definizioa

Adierazle honen bidez, LMH4ko ikasleek (10 urte inguruko haurrak) eta DBH2koak (14 urte inguruko nerabeak) eskolaz kanpoko ekintzetan zein hizkuntzatan aritzen diren jasoko dugu.

Hedadura

Nafarroa

Aldagaiak eta kategoriak

- Guztira (erabilera-tasa esleitua)
- Beti euskaraz
- Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago
- Bietan berdin
- Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago
- Beti gaztelaniaz
- Beste hizkuntza batean

Erabilera-tasa esleitua inkestak emandako erantzunen ugaritasuna laburtzeko eta balio numerikoa emateko egiten den kalkulua da. Kasu honetan aldagai honetan ikasleek emandako sei erantzun posibleak hartu eta honako erabilera-balio hauek esleitu zaizkie:

- Beti euskaraz = %100 euskaraz
- Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago = %75 euskaraz
- Euskaraz gaztelaniaz beste = %50 euskaraz
- Euskaraz gaztelaniaz baino gutxiago = %25 euskaraz
- Beti gaztelaniaz = %0 euskaraz
- Beste hizkuntza batean = %0 euskaraz

Honen bidez, Orik 100erako eskalan batez besteko datua zein den ezagutzeko aukera dago, sei kategorietako informazioa bakarrean laburtuz. Hizkuntza-erabilerari buruzko ikuspegi orokor bat izatea ahalbidetzen du horrek.

Azpi-adierazleak (gurutzaketak)

- Hizkuntza-eredua:
 - A eredia
 - D eredia
- Maila:
 - Lehen Hezkuntzako 4. Maila
 - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. Maila

<ul style="list-style-type: none"> • Sexua: <ul style="list-style-type: none"> ○ Neska ○ Mutila 	
Iturria(k)	
IZASKUN ARRUE PROIEKTUA	
Iturriaren ezaugarriak	IZASKUN ARRUE Proiektuak Nafarroako ikasleen eskola-giroko euskararen erabilera du aztergai. 2019ko otsailean, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamenduaren Ebaluazio Diagnostikoaren bidez, lehen aldiz jaso dira Nafarroako Lehen Hezkuntzako 4. Mailako eta Bigarren Hezkuntzako 2. Mailako ikasle guztien eskola-giroko hizkuntza-portaerei buruzko datuak. Hala, lehenengo datu-bilketa horren emaitza nagusiak aztertu ditu Soziolinguistika Klusterrak Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuaren enkarguz. Ikerketak ikasleek aitorturiko datuak eskaintzen ditu, eta EASen jaso dira A, B eta D ereduak ikasleen datuak (G ereduak ikasleak albo batera utzi dira, ez dutelako harremanik euskararekin eskola-giroan, ikasleriaren erdia baino zertxobait gehiago badira ere).
Eragiketaren arduraduna	Nafarroako Gobernuko Euskarabidea, eta Soziolinguistika Klusterra.
Hasierako datua eta maiztasuna	2019an lehen aldiz jaso dira datuak. Aurrera begira datu-bilketarako maiztasuna erabakitzeke dago.
Oharrak	<ul style="list-style-type: none"> • Nafarroako datu orokorrak A ereduak eta D (+B) ereduak ikasleei dagozkienak dira. G ereduak ikasleak albo batera utzi dira, ez dutelako harremanik euskararekin eskola-giroan, ikasleriaren erdia baino zertxobait gehiago badira ere. • Datu orokorra ikasleen erabilera-tasa esleitua da. Tasa hau inkestak emandako erantzunen ugaritasuna laburtzeko eta balio numerikoa emateko egiten den kalkulua da. Erabilera-tasa esleituaren bidez, 0tik 100erako eskalan batez besteko datua zein den ezagutzeko aukera dago.
Informazio osagarria	
Argitalpenak eta txostenak	